

# TXIKLEEN ARAZOA

Segur aski, behin baino gehiagotan geldituko zitzazizun oinetakoa txikle bati itsatsita.

Izan ere, gure herrietako parkeak, kaleak, autobusetako eserleku azpiak, e.a., txiklez josita daude. Esate baterako, Irungo Colon ibilbideko espaloietan 24.000 txikle daude jadanik. Hondarribiko

San Pedro kalean, berriz, 29.000 txikle kontu daitezke. Ba al dakizu txikle bakoitzak lurrean itsatsita gutxienez 6 urte ematen dituela, eta txikle bakoitza kentzea erastea baino zazpi aldiz gehiago kostatzen dela?



Txiklerik jaten al duzu? .....

Egunero, noiz behinka? .....

Nolakoak, banakakoak edota paketetan datozenak? .....

Nora botatzen duzu bilgarria? .....

Eta txikle bera? Zakarrontzira? Lurrera? .....

Bilduta ala bildu gabe? .....

Galderak erantzun eta gero, ikasleak txiklez jositako leku batera eramango ditugu.

(Agian, ekintza bera eskolako patioan egin daiteke, edota gela bi zatitan banatuta)

Bertan, zinta baten bidez, metro Karratu bat mugatuko dugu. Era berean, interesgarria izan daiteke aurkitutako txikleak zenbatzea Espatularen laguntzarekin ikasleek txikleak kentzen saiatu beharko dute. Berriak direnak erraz kenduko dira, zaharrak, aldiz, zailtasun handiz, edota ezinezkoa izan daiteke kentzea. Ekintza honek, bestalde, handik pasatzen diren beste herritarrek arazo honetaz sensibilizatzeko balio du.

Ekintza bukatu eta gero, beste galdera hauek planteatu ditzakegu:

Arazo berezirik sortzen ote dituzte? Zeintzuk? .....

## TXIKLEEN ARAZOA

Herriko zein lekutan gertatzen da antzekorik? .....

.....

Zein ondorio ditu bertan? .....

.....

Nola garbitzen ote dituzte txikleak Azpeitiko kale-garbitzaileek? (Ez badakizue, nori galde diezaiokizue?) .....

.....

Gure osasunean ondoriorik ba ote dute txikleek? .....

.....

Ez dakit dakizun herri batzuetan txikleen arazoari aurre egiteko garbiketarako makina bereziak erabiltzen dituztela. Aparatu hauek ur lurrina eta likido garbigarria injektatzen dute. Nahasketa honek txikle orbanak kentzen ditu eta lurra desinfektatzen.

Kontuan hartuta Irunen eta Hondarribin txikleak garbitzearen kostua txikle bakoitzeko 0,98 €koa izan dela, kaikula ezazu (zenbatutako txikleen arabera) zenbat kostatuko den zeuk aztertutako metro karratua garbitzea.

Zer egin dezakezu egoera hau saihesteko? .....

.....

Zer egiteko prest zaude? .....

.....

Arazo honi aurre egiteko ikastetxeari eta udaletxeari egindako proposamenak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....